



Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, Segurtasun Sailaren 2020rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen dirulaguntzen lege-araubidearen arabera, dirulaguntzak ematea proposatzen duten administrazio publikoek edo erakunde publikoek dirulaguntzen plan estrategiko bat izan beharko dute alde aurretik.

Alde horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/15 Zirkularraren bidez, hura lantzeko oinarritzko jarraibideak zehaztu zituen.

Horregatik, eta ikuspegi orokorra eskaintzeko, eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handitzeko eta publizitatea eta gardentasuna bultzatzeko, plan honek Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legean jasotako aurreikuspenak barne hartzen ditu.

Horiek horrela, Segurtasun Sailaren 2020rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu da.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Segurtasun Sailaren 2020rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea (agindu honen eranskin gisa doa).

Bigarrena.- Ezeztatzea Segurtasuneko sailburuaren 2020ko urtarrilaren 28ko agindua, Segurtasun Sailaren 2020rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duena.

Hirugarrena.- Agindu hau argitara eman dadila agintzea, dagozkion bitarteko ofizialak erabiliz eta, nolana ere, Segurtasun Sailari [www.euskadi.eus](http://euskadi.eus) webgunearen barruan dagozkion gunean sartuz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 30a.

Digitalki sin.: Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz
Segurtasuneko sailburua



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1YEM-4HEV bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador

J0D0Z-T1YEM-4HEV en la sede electrónica <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>
Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
tel. 945 01 87 58 - Fax 945 01 87 53 -



ERANSKINA
DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA
SEGURTASUN SAILA 2020

I- sarrera.

Plan hau sail honen politika planifikatzeko tresna bat da; izan ere, haren helburua da onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea edo helburu publikoak lor daitezela sustatzea, dirulaguntzen bitartez.

Azpimarratu behar da planak izaera programatikoa duela, eta, beraz, haren edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta haren eraginkortasuna dirulaguntza lerroak abian jartzearen baldintzapean dagoela, besteak beste, ekitaldiko aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.

Hori egiteko, lortu nahi diren interes publikoak aztertu dira, eta 2020an horretarako eskuragarri dauden baliabideekin erkatu dira. Horrela, eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handituko direla bermatzen da, bai eta gure jarduera-eremuan gardentasuna indartuko dela ere.

Aurrekoa oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau egin du, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 01/15 Zirkularrean Dirulaguntzen Plan Estrategikoak egiteko emandako jarraibideak erreferentzia gisa hartuta.

II. Planaren eremu objektiboa, instituzionala eta denbora-eremua.

Plan honetan Segurtasun Sailak kudeatzen dituen dirulaguntzak sartzen dira, Segurtasun Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko Dekretuan esleitzen zaizkion eskumenez baliatuta.

Dirulaguntzaren kontzeptuaren barruan, planak barne hartzen du pertsona publiko edo pribatuei dirua ematea, onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe, baldin eta dirua ematearen truke helburu jakin bat bete behar bada, edo proiektu bat gauzatu, jarduera bat egin edo jokabide berezi bat hartu behar bada. Diruz lagundutako proiektuaren, jardueraren, jokabidearen edo egoeraren xedea erabilera publikoko edo interes sozialeko jarduera bat edo helburu publiko bat sustatzea izan behar da.

Kanpoan uzten dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren aplikazio-eremutik kanpo berariaz geratzen diren kasuak.



Denbora-eremuari dagokionez, Planak 2020. urterako aurreikuspenak jasotzen ditu.

III. Planteatzen diren helburu nagusiak.

Sail honek sustapen-jarduerarekin helburu desberdinak bete nahi ditu, sailari esleitutako eskumen-eremuak ere desberdinak direlako.

- Hauteskunde-gastuak eta alderdi politikoaren funtzionamendu arrunteko gastuak finantzatzea.

Ekitaldi honetan Eusko Legebiltzarreko hurrengo hauteskundeak egingo direnez, Eusko Legebiltzarreko Hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen zazpigarren tituluan arautzen diren hauteskunde-dirulaguntzak aurreikusten dira.

151. artikuluan ezartzen dena betetzeko, alderdi politikoaren, federazioen, koalizioen edo hauteskunde-elkarteen hauteskunde-gastuak diruz lagunduko dira, honako arau hauen arabera (zifrak eguneratzea eragotzi gabe):

- a) 26.761,89 euro Eusko Legebiltzarrean eskuratutako jarleku bakoitzeko.
- b) 0,90 euro hautagaitza bakoitzak lortutako boto bakoitzeko, betiere zerrendako horietako batek gutxienez Legebiltzarreko jarlekua lortu badu dagokion hauteskunde-barrutian.
- c) 44.603,13 euro hauteskunde-barruti bakoitzeko, hauteskunde-barrutian gutxienez jarleku bat lortu dutenei.

Legeak zehazten du zer den hauteskunde-gastua eta zer ez, eta alderdi edo koalizio bakoitzerako hauteskunde-gastuen muga zein den: hautagaitzak aurkeztu dituen barrutietako zuzenbidezko biztanle-kopurua 0,42 euroekin biderkatzearen emaitza da, eta kopuru horri 202.400 euro gehituko zaizkio hautagaitzak aurkeztu dituzten barruti bakoitzeko.

Horrez gain, propaganda, gutun-azalak eta boto-paperak edo hauteskunde-publizitateko beste edozein elementu zuzenean eta pertsonalki hautesleei bidaltzeko eragiten dituen gastuak ere diruz lagunduko dira, 0,23 euro hautesle bakoitzeko, baldin eta erreferentziako hautagaitzak zerrenda aurkeztu badu barruti horietako bakoitzean eta jarleku bat lortu badu (kopuru hori ez da sartzen aurreko paragrafoan adierazitako mugaren barruan).

Talde politiko bakoitzari dagozkion hauteskunde-dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu Herri Kontuen Euskal Epaitegiak justifikatuz deklaraturako hauteskunde-gastuen kopurua.

Legeak alderdi bakoitzari egotz dakioken hauteskunde-gastua eta dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko prozedura jasotzen du, Herri Kontuen Euskal



Epaitegiak eta Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak hauteskunde-kontuak ikuskatu ondoren.

EAEko alderdi politikoek ohiko funtzionamenduaren ondoriozko gastuen dirulaguntzen bidezko finantzaketa urtez urte jasotzen da Euskadiko aurrekontuen legeetan, horietan xedatutakoarekin bat etorritik, eta Eusko Legebiltzarrerako egindako azken hauteskundeek emaitzen arabera banatzen da, Alderdien finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 3.2 eta 3.3 artikuluetan finkatutako irizpideen arabera.

Urtean zehar Eusko Legebiltzarrerako beste hauteskunde batzuk egin beharko direla aurreikusitako eskatutako du, antzeko kasuetan gertatu den bezala, bi aldi ezartzea, 2020an alderdi politikoek ohiko funtzionamendu-gastuak diruz laguntzeko aurreikusitako aurrekontu-partida banatzeko, hauteskundeek emaitza ofizialak kontuan hartuta.

Alderdi politikoek finantzaketa zorrotz araututa dago, sistema demokratikoaren egonkortasuna bermatzeko funtsezko faktorea baita. Beraz, herri-borondatearen eta botere politikoaren erabilaren arteko distortsio-elementurik ez txertatzeko bermeak eta bitartekoak behar ditu.

Alderdi politikoek finantzaketari buruzko Lege Organikoak adierazten duenaren arabera, alderdi politikoek beren eskumenak baliatzean duten askatasuna kaltetuta geratuko litzateke, baldin eta finantzaketa-formula gisa erabateko liberalizazio-eredu bat baimenduko balitz; izan ere, hala balitz, beti izango litzateke zalantzarria erabaki politiko jakin batean finantzaketa-iturri jakin batetik datozen ekarpenek izan lezaketen eragina, eta horrek alderdi politikoek herri borondatearen eraketa hedatzeko duten funtzioa hautsiko luke.

Hori dela eta, legeak haien funtzionamendua finantzatzeko iturri publikoak bermatzen ditu, eta, aldi berean, ekarpen pribatuak mugatu eta haien inguruan gardentasuna eskatzen du.

Hori dela eta, 2020ko ekitaldirako Euskadiko Aurrekontu Orokorrek, abenduaren 27ko 13/2019 Legearen bidez onartutakoek, 2020an hauteskundeetarako dirulaguntzak ematea aurreikusten dute (aurten legegintzaldia amaitzen baita), bai eta alderdi politikoek funtzionamendu arruntagatiko dirulaguntzak ere.

- Herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte har dezaten sustatzea.

1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena eta urtarrilaren 19ko 24/2010 Dekretuaren bidez garatzen dena (urtarrilaren 19ko 24/2010 Dekretua, herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman duten borondatezko parte-hartzeari buruzkoa, otsailaren 26ko 30/2019



Dekretuak aldatua). Dekretu horrek larrialdiei aurre egiteko eta babes zibilerako euskal sistemaren laguntzarako eta herritarren partaidetzarako sare bat jasotzen du, Babes zibilerako garrantzizkoak diren boluntarioen elkarrekin osatutakoa, besteak beste, Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena daukaten Euskadiko babes zibileko erakunde laguntzaileak.

Lankidetzeta-hitzarmenen bidez, erakunde horiek babes zibilaren eta larrialdien arloko jardueretan modu erregularrean lankidetzan aritzeko konpromisoa hartzen dute. Erakunde horiek altruistak izan behar dira, horien helburu nagusia larrialdi-egoeretan pertsoneri eta ondasunei arreta ematea izan behar da eta horien xedeen artean agertu behar da babes zibilaren arloko zerbitzuak ematea edo horietan laguntzea .

Lankidetzeta-hitzarmen horietan jaso behar da, besteak beste, erakunde laguntzaileak larrialdi-egoeretan parte hartzearen ondorioz dituen gastuen eta kalteen konpentsazio-araubidea, baldin eta parte hartze hori agintaritzak eskudunak eskatzen badu.

Urtarrilaren 19ko 24/2010 Dekretuaren 6. artikulua, bestalde, aurreikusten du Euskal Administrazioak herritarren babes zibilarekiko eta larrialdien arretarekiko lankidetzeta sustatu behar duela, besteak beste, boluntarioen erakundeekiko lotura sustatuz, bai eta babes zibilerako garrantzizkoak diren erakunde horien ekipamendua, prestakuntza eta gaikuntza ere.

lido horretan, lankidetzeta-hitzarmenak sinatu dira babes zibileko hainbat erakunde laguntzaileekin.

Hori dela eta, 2020ko ekitaldirako Euskadiko Aurrekontu Orokorrek, abenduaren 27ko 13/2019 Legearen bidez onartutakoek, dirulaguntza izendunak ematea aurreikusten dute lankidetzeta-hitzarmenak sinatuta dituzten babes zibileko erakunde laguntzaile hauei: Gurutze Gorria, DYA, Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea, Euskal Espeleologoen Elkarte eta Euskal Mendizale Federazioa.

- Mugikortasun segurua sustatzea.

AXA Fundazioarekin eta AESLEM Erekin lankidetzan arituz, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ikasleak trafiko-istripuen prebentzioari buruz informatzeko eta sentsibilizatzeko helburua bideratu du Sailak, mugikortasun segururako hezkuntza-kanpainen bidez.

Programaren hartzailak 12 urtetik gorako gazteak dira, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak aldeztu aurretik hautatutako ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa edo Lanbide Heziketa egiten ari direnak.

Horretarako, medikuek eta trafiko istripu baten ondorioz bizkarrezur-muineko lesioak dituzten pertsonen lehen mailako prebentzioko (ariskuak eta prebentzioa), bigarren mailako prebentzioko (istripua gertatuz gero nola jokatu) eta hirugarren mailako



prebentzioko (istripuen ondorioak) hitzaldiak emango dituzte, beti ere saioak ikasleen adinera eta mailara egokituta.

Aurreko urteetan arrakastaz garatu den sustapen-ildo bat da (adibidez, 2019an, 10.132 ikaslek parte hartu zuten 203 sentsibilizazio-ekintzatan).

Hori dela eta, abenduaren 27ko 13/2019 Legearen bidez onartutako 2020ko ekitaldirako Euskadiko aurrekontu orokorrek dirulaguntzak ematea aurreikusten dute, AESLEME erakundearekin eta AXA Fundazioarekin mugikortasun segururako hezkuntzari buruz sinatutako hitzarmenean hartutako konpromisoari ekarpena egiteko.

Antzeko helburu estrategiko bat lortze aldera, Stop Istripuak (Trafiko Istripuek Kaltetutakoei Laguntzeko eta Orientatzeko Elkartea) elkartearekin beste dirulaguntza-lerro bat aurreikusten da. Mugikortasun seguruaren eta istripuen prebentzioaren arloko jarduerak garatzeko, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak egiten dituenekin lerrokatuta.

- Jokoarekiko adikzioen ondoriozko arriskuen prebentzioa.

Jokoaren Euskal Behatokiak egindako azterlanen ondorioz, Joko arduratsua sustatzeko eta joko problematikoa prebenitzeko ekintza-plan bat egin da. Plan horren abiapuntua honako hauek dira: jokoaren eskuragarritasuna, irisgarritasuna eta eskaintza handitu dira, eta horrek pertsona eta kolektibo sozial jakin batzuegan izan ditzakeen nahi gabeko ondorioengatik gizartean dagoen kezka.

Badirudi, halaber, adikzioarengatik edo online jokoaren gehiegizko erabileragatik tratamendu-eskaerak nabarmen handitu direla.

Horregatik, ekintza-plan horren helburuen artean dago jokoaren erabilera desegokiari lotutako arriskuak murriztea eta mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen tratamendu integrala eskaintzea.

Horretarako, egokia da laguntza ekonomikoak ezartzea eta inplementatzea, ekipo teknikoak sortu eta mantentzeko, jokoarekiko adikzioek eragindako arriskuak eta kalteak prebenitzeko programak eta proiektuak garatzeko.

Horregatik, abenduaren 27ko 13/2019 Legearen bidez onartutako 2020ko ekitaldirako Euskadiko aurrekontu orokorretan aurreikusten da ludopatiak prebenitzeko dirulaguntzak ematea.

- Itsasertzeko itsas ingurunean kokatutako plataformen bidez informazio ozeano-meteorologikoa lortzeko ikerketa.

Gaur egun, Euskadiko sare ozeano-meteorologiko bat dago, honako hauek dituena: EAĒko Portuetan hiru plataforma ozeano-meteorologiko, ur sakoneko bi buia ozeano-



meteorologiko, kostaldeko radarren sare bat, eta kostaldeko hiru bideometria-sistema. Sare hori meteorologiako euskal zerbitzuak dituen baliabideen barruan integratuta dago.

AZTI Fundazioa zentro teknologiko espezializatua da, EuroGOOSirabazi-asmorik gabeko nazioarteko erakunde ospetsuaren kide da, eta Europa mailako ozeanografia operazionalarekin konprometituta dago. Ikerketa-ildo ozeanografikoak garatzen ari da, eta interesgarriak dira itsasoaren eta itsasertzaren etorkizuneko portaerari, kostaldeko arriskuei eta abarri buruzko iragarpenak egiteko, eta horiek lagunduko dute iragarpen ozeano meteorologikoa eta itsasoko zein itsasertzeko ekonomiaren jarduera-sektore guztietan segurtasuna eta eraginkortasuna hobetzen.

Hori dela eta, 2020ko ekitaldirako Euskadiko Aurrekontu Orokorrek, abenduaren 27ko 13/2019 Legearen bidez onartutakoek, Azti Fundazioari dirulaguntza izendun bat ematea aurreikusten dute.

- Ertzaintzako langileek Polizien eta Suhiltzaileen Jokoetan parte har dezaten sustatzea.

Jokoen helburua da, kirolari esker, mundu osoko polizien eta suhiltzaileen arteko esperientzia-trukea erraztea, segurtasun-zerbitzu publikoen arteko adiskidetasuna pizteko, eta, batez ere, eredia emanez forma fisiko eta profesional ona mantent dadin sustatzea.

Polizia-lanak baldintza fisiko bereziak eskatzen ditu, eta horrexegatik eskatzen dira hautaketa-prozesuan bertan, baina ibilbide profesionalean zehar ere mantendu behar dira.

Horretarako, Ertzaintzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioak, sasoi fisiko egokia mantent dadin sustatzeko neurri gisa, ezartzen du, kirol-jarduerak egiteko, funtzionarioei jarduera fisikoa egiten duten kiroldegiko edo gimnasioko tarifen zati bat ordainduko zaiela.

Sustapen hori indartu egiten da jarduera publikoetan parte hartzeari dagokionean, hala nola polizien eta suhiltzaileen jokoetan; izan ere, joko horiek daukaten proiektioagatik, akuilu eta pizgarri gisa balio dute beste funtzionario batzuek jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohitura hartzeko, sasoi egon daitezkeen eta beren lanbide-eremuan errendimendua eta segurtasuna handi tu dadin.

Egiaztatu da polizia-lanbidearekin lotutako kirol-jarduera publiko horietan parte hartzeak, batez ere komunikabideetan duen eragin publikoagatik, eta aurreko urteetan izandako parte-hartze arrakastatsua ikusita, eragina duela gainerako funtzionarioek kirol-jardueraren bidez sasoi fisiko onean egotearen komenigarritasunari buruz duten pertzepzioan; eta, aldi berean, kirol-lorpenak talde osoarentzat prestigiotzat hartzen dira.



Estimulu hori oso komenigarria da kontuan hartzen badira funtzionario guztientzat jarduera fisikoari eusteko nahitaezko programak ezartzeak ekarriko lituzkeen zailtasunak eta eragozpenak, eta agenteak sasoi fisiko onean ez egoteak zuzeneko lotura izango lukeela beraren laneko errendimenduarekin eta osasunarekin.

Aitzitik, kirol-jarduerak eragin positiboa du lanarekin lotutako hainbat gaitasun fisiko espezifikoren hobekuntzan, gorputza eraginkortasunez mugitzeko eta nekea kudeatzeko gaitasunean, alderdi psikologikoen hobekuntzan, enfrentamendu fisiko baten aurreko arriskuaren murrizketan eta osasunarekin lotutako alderdien hobekuntzan.

Horrek guztiak bat egiten du "Ertzaintza Zerbitzuan" programaren aurrekontu-memoriako aurreikuspen haiekin: Ertzaintzako funtzionarioen osasunaren prebentzioa eta sustapena bultzatzeari eta egungo errealitatera egokitutako segurtasun-zerbitzu integrala lortzeko konpromisoari buruzkoak.

Horregatik, 2020ko ekitaldirako Euskadiko Aurrekontu Orokorrek, abenduaren 27ko 13/2019 Legearen bidez onartutakoek, aurreikusten dute 2020an Polizien eta Suhiltzaileen Jokoetan parte hartzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren kidegoko kirolariei laguntza ematea.

IV. Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak.

Jarraian, Planaren ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen lerroak zerrendatuko dira, saileko unitate organikoen arabera:

ARAUBIDE JURIDIKOAREN, ZERBITZUEN ETA HAUTESKUNDE PROZESUEN ZUZENDARITZA

4611 programa

Helburu estrategikoa: alderdi politikoen finantzaketa.

1. dirulaguntza lerroa: Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi politikoentzako dirulaguntzak, ohiko funtzionamenduko gastuei aurre egiteko.

A) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: alderdien ohiko gastuen finantzaketa publikoan laguntzea, beren konstituzio xedeak behar bezala gara ditzaten.

Ekintza: adierazitakoa.

Adierazleak: dirulaguntza jasotzen duten alderdi politikoen kopurua.

B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 4.536.000 €.

Partida: 11 4611 12 45499 001

**C) ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIZKION ETA EMATEKO PROZEDURA**

Xede duten sektorea: alderdi politikoak.

Emateko prozedura: dirulaguntza izenduna.

2. dirulaguntza lerroa: hauteskundeetako dirulaguntzak.

A) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: 2020ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara aurkezten diren alderdi, koalizio eta hautesle-elkarteen hauteskunde-gastuak publikoki finantzatzen laguntzea.

Ekintza: adierazitakoa.

Adierazleak: dirulaguntza jasotzen duten alderdi politikoen kopurua.

B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 5.000.000 €.

Partida: 11 4611 12 45499 002

C) ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIZKION ETA EMATEKO PROZEDURA

Xede duten sektorea: alderdi politikoak.

Emateko prozedura: dirulaguntza izenduna.

LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIARI ZUZENDARITZA**2231 programa****Helburu estrategikoa: herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte har dezaten sustatzea**

1. dirulaguntza lerroa: Gurutze Gorria.

A) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte har dezaten sustatzea.

Ekintza: sinatutako lankidetzaz hitzarmenean garatutakoak.

Adierazleak: sinatutako lankidetzaz hitzarmenean garatutakoak (mobilizazio-kopurua, aurreikus daitezkeen arriskueterako prebentzio-dispositiboaren kopurua, prestakuntza-edo dibulgazio-jardueren kopurua ..)

B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 453.600 €.

Partida: 11 2231 21 45499 001

C) ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIZKION ETA EMATEKO PROZEDURA

Xede duten sektorea: Gurutze Gorria.

Emateko prozedura: Segurtasuneko sailburuaren agindu bidez eman beharreko dirulaguntza izenduna.

2. dirulaguntza lerroa: DYA.

A) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte har dezaten sustatzea.

Ekintza: sinatutako lankidetzaz hitzarmenean garatutakoak.



Adierazleak: sinatutako lankidetza-hitzarmenean garatutakoak (mobilizazio-kopurua, aurreikus daitezkeen arriskueterako prebentzio-dispositiboen kopurua, prestakuntza- edo dibulgazio-jardueren kopurua ...)

B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 137.000 €.

Partida: 11 2231 21 45499 002

C) ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIZKION ETA EMATEKO PROZEDURA

Xede duten sektorea: DYA.

Emateko prozedura: Segurtasuneko sailburuaren agindu bidez eman beharreko dirulaguntza izenduna.

3. dirulaguntza lerroa: Euskadiko Laguntza Txakurren taldea.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte har dezaten sustatzea.

Ekintza: sinatutako lankidetza-hitzarmenean garatutakoak.

Adierazleak: sinatutako lankidetza-hitzarmenean garatutakoak (mobilizazio kopurua, boluntarioen akreditazio kopurua, prestakuntza- edo dibulgazio-jardueren kopurua ...)

B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 36.000 €.

Partida: 11 2231 21 45499 003

C) ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIZKION ETA EMATEKO PROZEDURA

Xede duten sektorea: Euskadiko laguntza Txakurren Taldea.

Emateko prozedura: Segurtasuneko sailburuaren agindu bidez eman beharreko dirulaguntza izenduna.

4. dirulaguntza lerroa: Euskal Espeleologoen Elkarte.

A) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte har dezaten sustatzea.

Ekintza: sinatutako lankidetza-hitzarmenean garatutakoak.

Adierazleak: sinatutako lankidetza-hitzarmenean garatutakoak (mobilizazio kopurua, boluntarioen akreditazio kopurua, prestakuntza- edo dibulgazio-jardueren kopurua ...)

B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 15.000 €.

Partida: 11 2231 21 45499 004

C) ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIZKION ETA EMATEKO PROZEDURA

Euskal Espeleologoen Elkarte.

Emateko prozedura: segurtasuneko sailburuaren agindu bidez eman beharreko dirulaguntza izenduna.

5. dirulaguntza lerroa: Euskal Mendizale Federazioa.

A) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte har dezaten sustatzea.



Ekintza: sinatutako lankidetza-hitzarmenean garatutakoak.

Adierazleak: sinatutako lankidetza-hitzarmenean garatutakoak (zabaldutako prestakuntza- edo dibulgazio-jardueren kopurua, prestatutako pertsonen kopurua ...)

B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 25.000 €.

Partida: 11 2231 21 45499 005

C) ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIZKION ETA EMATEKO PROZEDURA

Zein sektoretara doazen: Euskal Mendizale Federazioa.

Emateko prozedura: Segurtasuneko sailburuaren agindu bidez eman beharreko dirulaguntza izenduna.

LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIARI ZUZENDARITZA

5512 programa

Helburu estrategikoa: itsasertzeko itsas ingurunean kokatutako plataformen bidez informazio ozeano-meteorologikoa lortzeko ikerketa.

1. dirulaguntza lerroa: Azti Fundazioa.

A) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: itsasertzeko itsas ingurunean kokatutako plataformen bidez informazio ozeano-meteorologikoa lortzeko ikerketa.

Ekintza: sinatzen den lankidetza-hitzarmenean garatutakoak.

Adierazleak: sinatzen den lankidetza-hitzarmenean garatutakoak

B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: konpromiso-kreditua: 2021: 0,20 m; Guztira: 0,20 m. 195.000 €

Partida: 11 5512 21 45401 001

C) ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIZKION ETA EMATEKO PROZEDURA

Xede duten sektorea: Azti.

Emateko prozedura: Segurtasuneko sailburuaren agindu bidez eman beharreko dirulaguntza izenduna.

TRAFIKO ZUZENDARITZA

2221 programa

Helburu estrategikoa: mugikortasun iraunkorra eta segurua sustatzea.

1. dirulaguntza lerroa: AESLEME eta AXA Fundazioarekin mugikortasun segururako hezkuntzari buruzko hitzarmena

A) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: ikastetxeetako ikasleak trafiko-istripuen prebentzioari buruz informatzea eta sentsibilizatzea.

Ekintza: sinatutako lankidetza-hitzarmenean garatutakoak.



Adierazleak: sinatutako lankidetza-hitzarmenean garatutakoak (zabaldutako prestakuntza- edo dibulgazio-jardueren kopurua ...)

B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 24.000 €.

Partida: 11 2221 23 45499 001

C) ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIZKION ETA EMATEKO PROZEDURA

Xede duten sektorea: AESLEM E.

Emateko prozedura: Segurtasuneko sailburuaren agindu bidez eman beharreko dirulaguntza izenduna.

2. dirulaguntza lerroa: Stop Istripuak elkartearekin mugikortasun seguruari eta istripuen prebentzioari buruzko hitzarmena.

A) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: Mugikortasun segurua eta istripuen prebentzioa sustatzea, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak egiten dituenekin bat datozen jarduerekin lerrokatuta.

Ekintza: sinatzen den lankidetza-hitzarmenean garatutakoak.

Adierazleak: sinatzen den lankidetza-hitzarmenean garatutakoak (jardueren kopurua eta jardueren xede diren pertsona kopurua).

B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 25.000 €.

Partida: 11 2221 23 45499

C) ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIZKION ETA EMATEKO PROZEDURA

Xede duten sektorea: Stop istripuak Elkartea (Trafiko Istripuek Eragindakoei Laguntzeko eta Orientatzeko Elkartea).

Emateko prozedura: Segurtasuneko sailburuaren agindu bidez eman beharreko zuzeneko dirulaguntza.

JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

6113 programa

Helburu estrategikoa: ludopatiaren prebentziorako eta tratamendu psikosozialerako programak garatzea.

Dirulaguntza lerroa: ludopatiaren prebentziorako eta tratamendu psikosozialerako programak ezartzea.

A) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: joko patologikoan sor ditzaketen ohiturak edo jokabideak indargabetzeko prebentzio-programak garatzeko laguntza ekonomikoak, arreta berezia jarriz kolektibo ahulenei, hala nola adingabeei edo nahimen-gaitasunak murriztuta dituzten pertsoneri.

Ekintza: goian aipatutakoak.

Adierazleak: programen kopurua eta horien hartzaile kopurua.

B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 200.000 €.

Partida: 11 6113 22 45301 001

**C) ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIKION ETA EMATEKO PROZEDURA**

Xede duten sektorea: ludopatiaren inguruko informazio- eta prebentzio-jarduerak garatzeko irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatuak.

Emateko prozedura: laguntzak arautzeko oinarriak onartzeko Agindua eta laguntza-deialdia, Segurtasuneko sailburuaren agindu bidez.

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA

2223 programa

Helburu estrategikoa: Ertzaintzako langileek Polizien eta Suhiltzaileen Jokoetan parte har dezaten sustatzea.

Dirulaguntza lerroa: Ertzaintzako langileen kirol-partaidetza sustatzea Polizien eta Suhiltzaileen Jokoetan, 2020an.

A) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: 2020ko Polizien eta Suhiltzaileen Jokoetan parte hartzen duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak.

Ekintza: goian aipatutakoak.

Adierazleak: parte-hartzaile kopurua.

B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 20.000 €.

Partida: 11 2223 13 45301 001

C) ZEIN SEKTORERI ZUZENTZEN ZAIKION ETA EMATEKO PROZEDURA

Xede duten sektorea: Ertzaintzako funtzionarioak.

Emateko prozedura: laguntzak arautzeko oinarriak onartzeko Agindua eta laguntza-deialdia, Segurtasuneko sailburuaren agindu bidez.